

Onettiren kondenaazioa



LETRA JORRAN © JUAN RAMON MADARIAGA

Harrigarriak izaten dira idazle zenbaitek bizitzarekiko harremanetan zein heriotzarekikoetan dituzten usadio zorrotz eta obsesiboak.

Deigarriak dira, adibidez, hil orduko erabiltzen dituzten trikimailu sofistika-tuak heriotzaren besarkada inoiz baino arinago sentitzeko, azaleratzeko. Hala egiten dute suizidek, urrats beldurgarri eta zentzugabe hori egitea deliberatzen dutenean.

Baina badira bizirik dirauteino, neurosi arraroak edo berezi samarrak gordezten dituztenak. Niri arreta deitu didan itsumen horietariko bat idazleak ohearekin duen behar pasionala izan da.

Audituek diotenez, Robert Louis Stevensonek bolada luzeak eman behar izan zituen jarrera horizontal horretan, ohe batean etzanda birikeriak jota ibili zenean, Voltaire orduak eta orduak ematen

zituena ohean letren bideak aztertzen, Hemingwayk eldarnioak jota egoten zen askotan, eta esna egote hori profitatzen zuen lerroak eta lerroak idazteko, eta Valle Inclan, Mark Twain...

Idazle anitzek iragan dute denbora dezente maindire azpian kiribilduta, bihotzak zer emango zain, baina denen artean gehien miretsi dudana Juan Carlos Onetti izan da.

Bere bizitzaren azken bost urteak ohe-tik altxatu barik eman zituen. Heriotzari egindako keinu horren atzean bere deabruak, kalamidadeak eta deskalabruak bizi izandako idazle baten arima erraria dago, pertsona baten ibilbide literario oparoa, bitxia eta hunkigarria.

Harturiko ebatziaren gibelean erronka bat zegoen: literaturaren marketinetik urruntzea, eta bere plazer eta kondena-zioa zenari, izkiriatazeari, ekitea.

Onetti, Benedetti, Borges, Quiroga,

Lezama Lima, Rulfo, Bioy Casares, Alejo Carpentier kubatarra, Neruda eta Sabato uholde baten barruan deskubritu nituen idazleak izan ziren, eta guztiak, garai hartan, ikaragarri harritu baninduten ere, Onettik beste zerbaite izan zuten. *Juntacadaveres*, *El astillero* bezalako tituluetan hala sentitu nuen, bederen.

Behinola, telebistan agertu zen Onetti, etxe barruko irudi batzuetan, bizarra egin barik, pijama bat izan zitekeena soinean jantzita, behako galduta, eta agian burua ere bai.

Literaturarekiko obsesio apartekoak eraman zuen bizitzaren bazter horretara, eta halarik ere bere hegatsa ez zen herdoildu *Cuando ya no importe* izenekoa testametu liburua idatzi zuen arte.

Duela hamar urte hil zen Onetti, bere denboraren barruan, irudikaturiko pertsonaiekin berbetan, betiko ohean, bere kondena-zio literarioa maitale zuelarik.



Pertsonaia bakartiz betetako nobela

'TANGO URDINA'

Egilea: Aitziber Etxeberria.

Argitaratzailea: Erein.

Urtea: 2003.

Etxebizitza handi bateko kideen istorioa kontatzen du *Tango urdina*-k. Denak desberdinak dira, baina bakardadeak lotzen ditu. Protagonistak, Joxe Mari bakartiak, lotuko ditu bizilagunen istorioak. 2003ko Donostia Opera Prima saria irabazi zuen Etxeberriak liburua honekin.



Erljiioari eskainitako poemak

'JAUNAREKIN SUPAZTERREAN (GANDIAGA OROITUZ)'

Egilea: Patxi Ezkiaga.

Argitaratzailea: Arantzazu.

Urtea: 2003.

Otoitz giroko poemak biltzen ditu Ezkiagak liburua hone-tan, euskaraz eta gaztelaniaz. Poema bakoitzaren hasieran Bitoriano Gandiagaren aipuak daude, poema argitaratu gabee-tatik ateratakoak. Gandiagaren eta Ezkiagaren sentsibiltate erlijiosoa nabarmentzen da liburuan.



Lehen maitasunari buruzko lan ausarta

'PIRTZINA ZILBORREAN'

Idazlea: Antton Kazabon.

Argialetxea: Elkar.

Urtea: 2004.

Aitor eta Joana elkarren arteko harremana konpondu ezinik dabilta. Joanak maite du, baina pikutara bidali nahi du. Aitorrek, berri-z, Joana eta Iratiren artean erabaki behar du. Telefono bidezko elkarrizketek osatzen dute liburua. «Euskal eleberrri telefonikoak» sortu du Kazabonek.

Gazteak hemeretzi urte besterik ez ditu 1985. urtean. Bogotatik Madrilera doa, maletan hirurogeita bost orriko *nouvelle* bat eta hiruz-palau ipuin darozazala. Idazteari ekin dio ia ezari-ezarian, irakur-tzeak sortzen dion gozamenak zirikatuta. Idazletzak, halere, ikara eragiten dio, beldur halako bat. Idazlearen patuari tragiko deritzo, idazketan kale egiteak bizitza osoa azpikoz gora jar die-zaiokelako. Inori ez dio esango idazle denik lehenengo eleberria argitaratu arte.

Ez du batera gustuko literatura generoen arbera sailkatzea. Li-teraturak, hala deritzo, genero-ak, teknikak eta munduak na-hastu behar ditu. Eleberriak idazterakoan, «ahotsa» bilatzen du, atzetik beste lerroalde guz-tiak ekarriko dituen ahots harra-patzen zaila. Errealitatean eta eleberrian erabateko arrotzatu-na du jomuga.

Idazle zapuztuta sen-titu izan da. Baita maita-leren batek edo bestek bertan behera lagata ere. Amets egiten du etengabe. Argaldu gu-ran dihardu behin eta behin. Bidaiazalea da osotoro. Alferrik egoten da aireportuetan zain, zorionsu egin behar duen laguna noiz etorri-ko. Kubako emakumerik ezagutu du Bibliaren arbera, baita errusiar emagalduen adiskidantza bere-ganatu ere. Bere burua ateo eta libertinotzat du, baina etika eta giza eskubideak noiznahi dara-biltza aldarri. Beraren lanek sar-ri bai sarri nobela biltzaren ezaugarriak hartzen dituzte.

Halako batean, ia ustekabean,



'GALTZEA METODO KONTUA DA'

Egilea: Santiago Gamboa.

Itzultzailea: Ainara Maia Urroz.

Argialetxea: Txalaparta.

Urtea: 2004.

Jatorrizko izenburua: *Perder es cuestión de método*.

idazleak idatzi gabe uzten dituen gauzak, maiz, idatzitakoak bai-no hobeak direla eta eskribatzai-leak, etsi-etsian, halakoetan bila jardun behar duela.

Filologia ikasi eta kazetaritza-tik bizi izan da Parisen. Pekinen ere bai. Eta Madrilen, jakina. Nahitaez, bere bizimodua, ia oharkabean, idazlan guztietan islatuz joango da. Liburuaren ka-litatea halakoaren sinesgarritasunaren araberakotzat du. Eta, zelan lortu pertsonaia sinesgar-riak benetako biziaeren arnasa eransteke? Eleberria galera mo-duko bat ei da idazlearentzat. Gamboari, behintzat, hala jazot-zen zaio, edolabere. Idazten hasterakoan, eleberrigile gehie-non antzera, beti-beti izaten du nobela handi bat kimera. Gero, idazketari berari benetan ekite-koa dator. Eta, langai horretan, indarra eta trebezia ez datozkio beti idazleari lagun. Ez, behin-

Etengabe dihardu berben aurka borrokan, politikariak eta ko-munikabideak diskurtso ideolo-gikoaz jabetu direlako. Batzuek Garcia Marquezen ondorengo-tzat jotzen dute, ordea, berak ez du lar sinesten horrelako etikete-tan. Halere, sarritan diote kaze-tariei Kolonbiak ez diela uzten ukitu beltzetik urruntzen: nar-kotrafikoa, gerra zibila, borroka armatua, terrorismoa... Gizarte batek hainbesteko sufrikarioa jasaten duenean, bere buruaren hainbat bertsio behar ditu. Eta idazleek beharizan hori ase behar dute. Eskribatzai-leak ez dio gizartearen zor zibikoari uko egin behar. Izan ere, begi zo-rrotzez begiratu behar dio gizar-teari, akuilu jokatu behar du. Poli-zi kutsuko eleberriaren bitar-tez bada ere.

Galtzea metodo kontua da 1997. urtean plazaratu arren, 2004. urtean arte ez du euskar-zko argia ikusi Ainara Maia Urrozaren lehenen-go literatur itzulpenari esker. Eginkizuna ez da izan makala itzultzaile-arentzat, jatorrizkoari hegoamerikar gaztela-nia berezi halako baten kutsua dariolako, eta, guztiarekin ere, erraz irakurtzen den itzulpe-na eman digu. Modu duin-duinean gaintitu du dema, izan ere.

Itzulpena argitara-tzea ere bada metodo kontua. Halere, euskal argitale-txe guztiak oraindik ez bide dira ohartu, letra txikian bada ere, itzultzailearen izena ere aipatu behar dutenik azalean. Baina, liburuetan ez legez, «bizitzan istorioak ez dira inoiz buka-tzen». © Karlos del Olmo

GALTZAILEAREN ESKULIBURUA

EGINKIZUNA EZ DA MAKALA IZAN ITZULTZAILEARENTZAT, ETA, GUZTIAREKIN ERE, ERRAZ IRAKURTZEN DEN ITZULPENA EMAN DIGU. MODU DUIN-DUINEAN GAINDITU DU DEMA

Vida feliz de un joven llamado Esteban lanaz arrakasta izugarria lortu du. Halere, liburuek idaz-lea idazmahaietan bertan saritzen dutelakoan dago. Sariak, idazle-i baino gehiago, liburuei berei ematen dizkietela deritzo. Lite-raturan bide asko dagoela eta

tzat, berak nahi lukeen neurrian. Azken buruan, estiloa idazle-aren mugakizunek eratzen bide dute.

Narratzen dituen istorioen atzetik ezkatzen da. Aktoreen antzera, bizitza hobetu gura iza-tzen du, errealitatea gobernatu.